



2.- GIPUZKOAKO EKONOMIA

2.1 JARDUERA EKONOMIKOA

Covid-19aren hedapenak munduko jarduera ekonomikoa hankaz gora jarri du. Gipuzkoako ekonomiaren kasuan, 2020ko lehen seihilekoan BPGaren urte arteko jaitsiera tasa % 11,1 izan da. Bat-bateko beherakada hori martxoaren bigarren hamabostaldian ezarri zen alarma egoerari lotuta dago. Osasun alarmak funtsezkoak ez ziren jarduera guztiak geldiarazi zituen eta deseskalatze prozesua hasieran aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da, ia bigarren hiruileko osora luzatu baita.

2.- ECONOMÍA DE GIPUZKOA

2.1 ACTIVIDAD ECONÓMICA


La expansión de la Covid-19 ha trastocado la actividad económica mundial. En el caso de la economía guipuzcoana, el primer semestre de 2020 se ha saldado con una caída interanual del PIB del 11,1% . Este brusco descenso está relacionado con el estado de alarma instaurado en la segunda quincena de marzo. La alerta sanitaria paró toda la actividad no esencial y el proceso de desescalada ha sido más largo de lo inicialmente previsto, prolongándose durante prácticamente todo el segundo trimestre.

2.1.1. taula.- Barne Produktu Gordina
Cuadro 2.1.1.- Producto Interior Bruto

KONTZEPTUA / CONCEPTO	2016	2017	2018	2019	2020 (*)
BPG milioi euro/PIB millones de euros	23.545	24.429	25.705	26.714	11.744
BPG bariazioa %/PIB % variación	3,9	3,8	5,2	3,9	-11,1

(*) Urtarriletik ekainera bitartekoa / Desde enero hasta junio

BPG BARIAZIOA % / PIB % VARIACIÓN



2.1.2. taula.- Industriaren adierazleak (bariazio tasak %tan)
Cuadro 2.1.2.- Indicadores de la Industria (tasas de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020 (*)
IPI orokorra / IPI General	0,4	4,7	6,0	1,2	-15,0
IPI, indus. erauzl.ak/IPI Ind.extractivas	-23,1	-9,0	16,4	0,5	-8,1
IPI, manif.ind. / IPI Ind.Manuf	0,9	5,1	6,3	1,5	-15,6
IPI, energia / IPI Energía	-4,8	-0,2	1,5	-2,6	-7,8



(*) Urtarriletik uztailera bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta julio
Iturria: EUSTAT eta guk osatutakoa / Fuente: EUSTAT y elaboración propia

Oharra: txosten honetako tauletan, besterik esaten ez bada, bariazio tasak urteko batez bestekoen gainean kalkulatu dira. Salbuespena 2020. urtearekin egin da: izan ere, honetan aldagai bakoitzerako hartu den informazioa denbora tarteari buruzkoa da.

Nota: En los cuadros de este informe, si no se indica lo contrario, las tasas de variación están calculadas sobre medias anuales salvo en 2020 en el que se considera el período del que dispone la información para cada variable.



IPI OROKORRA BARIAZIOA % / IPI GENERAL % VARIACIÓN



Industria sektorea jaitsiera handi bat izan du 2020ko bigarren hiruhilekoan, eta produkzio industrialaren indizea % 5,9 negatiboa da 2020ko lehenengo hiruhilekoan eta 2020ko bigarren hiruhilekoan % 25,1 jaitsi da. 2020ko lehen seiuhilekoan produkzio industrialaren indizearen bariazioa -% 15,0 da orotara, eta manufaktura industrietan emaniko jaitsiera (-% 15,6) azpimarratu daiteke.

Beste zenbait adierazlek ere industria sektorearen bilakaera negatiboa erakusten dute: Horrela, lehen lauhilekoari dagokion enpresen iritzi inkestan ikusi daiteke balio oso txarrak dituela ahalmen produktiboaren erabilera atalean, eskarien kartera atalean jaitsiera nabarmena ikusi daiteke, eta biztanleria okupatuaren indizea nabarmen jaitsi da.

El **sector industrial** sufre un gran descenso en el segundo trimestre de 2020. Así, el índice de producción industrial ofrece un valor negativo del 5,9% en el primer trimestre de 2020, y ha disminuido en el segundo trimestre el 25,1%. La variación del índice de producción industrial del primer semestre de 2020 se sitúa así en el -15,0%, destacando la tasa de variación de las industrias manufactureras, -15,6%.

Otros indicadores coyunturales del sector industrial inciden en el retroceso de la actividad industrial: la encuesta de opiniones empresariales del primer cuatrimestre muestra muy malos valores en cuanto a utilización de la capacidad productiva, el indicador de cartera de pedidos tiene un importante retroceso y el índice de la población ocupada es de disminución considerable.



2.1.3 taula. - Industria jardueraren adierazleak. Enpresarien iritziak
Cuadro 2.1.3.- Indicadores de Actividad Industrial. Opiniones Empresariales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020
Ahalm. produk.erabilera / Utiliz. cap. productiva(1)	81,4	80,5	84,1	83,4	58,0 (I cuatrim.)
Eskarien kartera / Cartera de Pedidos (2)	41,4	61,7	59,5	33,0	-51,5 (I cuatrim.)
Biztanleria okupatua/ Población ocupada	0,9	3,9	12,4	4,0	-4,4. (I sem.)

(1) Ehunekoetan ahalmen produktibo osoari dagokionez.

En tanto por cien respecto a la capacidad productiva total.

(2) Eskarien kartera handia + arrunta dutela eta eskarien kartera txikia dutela dioten enpresen arteko aldea.

Diferencia entre el porcentaje de empresas que dicen tener un nivel elevado + normal de cartera de pedidos y el de las que señalan un nivel reducido.

Iturria: ADEGI. / Fuente: ADEGI.

Eraikuntzari buruz dauden adierazleek egoera okerragoa erakusten dute 2019ko ekitaldian. Hazkunde tasa negatiboak eman dira sektoreko biztanleria okupatuari dagokionez eta aurreko urteetan eman den joera aldatzen da, eta 2020. urtean tasa negatiboa finkatzen da. Bisatutako etxebizitzetzi buruz aurreratutako adierazleak maila positiboan kokatzen dira.

Los indicadores disponibles de **la construcción** presentan un empeoramiento en el ejercicio 2019 con tasas de crecimiento negativo de la población ocupada del sector que cambia la tendencia de años anteriores, y ese crecimiento negativo se consolida en 2020. Los indicadores adelantados de viviendas visadas, presentan niveles positivos.

2.1.4. taula. Eraikuntzaren adierazleak (bariazio tasak %-tan)
Cuadro 2.1.4.- Indicadores de Construcción (tasa de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020
Etxebizitza bisatuak / Viviendas visadas	26,6	8,3	-0,6	3,9	1,3 (I sem)
Biztalaria okupatua / Población ocupada	5,5	4,1	5,9	-3,7	-1,7 (I sem)

Iturriak: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa eta EUSTAT /

Fuente: Colegio Vasco Navarro de Arquitectos y EUSTAT

Zerbitzu sektorean, biztanleria okupatua positiboan mantentzen da: 2020ko lehenengo seihilekoan % 0,5 igo da.

En el **sector servicios**, la población ocupada se mantiene en positivo: en el primer semestre de 2020, aumenta el 0,5%.

Ostatuetan egindako gauen kopuruak hazkunde tasa oso negatiboa izan du 2020ko lehenengo zortzi hilabeteetan (-% 68,6).

Las pernoctaciones hoteleras presentan tasa muy negativa de crecimiento durante los primeros ocho meses de 2020 (-68,6%).

2.1.5. taula.- Zerbitzuen adierazleak (bariazio tasa %-tan)
Cuadro 2.1.5.- Indicadores de Servicios. (tasa de variación en %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020
Hoteletako gau-egonaldiak / Pernoctaciones hoteleras	9,4	0,1	9,5	6,3	-68,6 (1)
Bidaiarien aire garraioa / Tráfico aéreo pasajeros	3,7	6,6	2,7	10,7	-69,9 (1)
Merkantzien itsas garraioa / Tráfico marít. mercancías	-9,2	-14,4	6,3	3,5	-16,9 (1)
Biztanleria okupatua/ Población ocupada	0,8	0,4	-2,4	2,7	0,5 (2)

(1) Urtarriletik abuztura bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta agosto

(2) Urtarriletik ekainera bitarteko bariazioa / Variación desde enero hasta junio

Iturriak: Pasaiaiko Portuko Agintaritzza, Hondarribiko Aireportua eta EUSTAT. /

Fuentes: Junta del Puerto de Pasaia, Aeropuerto de Hondarribia y EUSTAT.

Bidaiarien aire garraioa asko jaitsi da 2020an, urtarriletik abuztura bitartean (-% 69,9).

El tráfico aéreo de pasajeros ha experimentado un importante descenso en el periodo enero-agosto de 2020 (-69,9%).

Pasaiaiko Portuko **merkantzien itsas**

El tráfico marítimo de mercancías



garraioak jaitsiera handia jasan du 2020an, urtariletik abuztura bitartean (-% 16,9).

del Puerto de Pasajes, presenta también un importante descenso en su actividad durante el periodo enero-agosto de 2020 (-16,9%).

Kanpo merkataritzaren arloan, 2020ko lehen 6 hilabeteetan esportazioek jaitsiera handia erakusten dute, -% 26,2, % 18,8 2019ko epealdi berean igo ondoren. Ehuneko horiek berdinak dira energia produktuak kanpoan uzten baditugu. Inportazioek % 22,2ko jaitsiera izan dute 2020ko epealdi berean.

En el ámbito del **comercio exterior**, en 2020 (6 primeros meses) las exportaciones muestran un importante descenso, -26,2%, después de haber subido el 18,8% en igual periodo de 2019. Estos porcentajes son idénticos si excluimos los productos energéticos. Las importaciones experimentan una disminución del 22,2% en igual periodo de 2020.

2.1.6. taula.- Kanpoko merkataritzaren bilakaera konparatua (bariazio tasak aurreko ekitaldiaren aldean, %-tan)
Cuadro 2.1.6.- Evolución comparada del Comercio Exterior (tasas de variación respecto al ejercicio anterior %)

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2016	2017	2018	2019	2020 (I. sem.)
ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK EXPORTACIONES NO ENERGETICAS	-2,6	4,3	6,5	11,6	-26,2
INPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK IMPORTACIONES NO ENERGETICAS	-6,2	11,2	9,5	3,7	-22,2

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas

Analisis ondasunen elkartrukean oinarritzen badugu, 2020an, esportazioen produktu talde guztietan eman da jaitsiera, garraio - materialaren taldean izandako jaitsiera handiena izanik, 2020ko lehenengo sei hilekoan 509 milioi euroko jaitsiera izan baitu (-% 41,7).

Si centramos el análisis en los intercambios de bienes, la disminución de las exportaciones, en el ejercicio 2020, se da en todos los grupos de productos, siendo mayor la disminución del grupo de material de transporte, que en el primer semestre de 2020 registra una disminución de 509 millones de euros (-41,7%).

2.1.7. taula.- Esportazioak produktuen arabera
Cuadro 2.1.7.- Exportaciones por productos

PRODUKTU TALDEAK GRUPOS DE PRODUCTOS	Balio absolutuak Valores Absolutos				Bariazio abs. Variac. abs.		Bariazioa (%) Variación %	
	2018	2019	2019 I sem	2020 I sem	19/18	20/19	19/18	20/19
Nekazaritza produk. / Prod. Agrícolas	360	379	184	172	18	-12	5,1	-6,3
Papera / Papel	436	430	221	207	-6	-14	-1,4	-6,5
Plastikoa eta kautxoa./ Plástico y caucho	228	227	115	106	-1	-9	-0,4	-7,8
Metalak / Metales	1.661	1.633	891	647	-28	-244	-1,7	-27,4
Material elektrikoa / Material eléctrico	2.846	2.892	1.459	1.142	46	-316	1,6	-21,7
Garraio materiala / Material de transporte	1.496	2.329	1.219	710	833	-509	55,7	-41,7
Besteak / Resto	613	640	337	281	27	-57	4,4	-16,8
Esportazioak, guztira / Total Exportaciones	7.641	8.530	4.426	3.265	889	-1.161	11,6	-26,2

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra. / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

Area ekonomikoen hazkunde erritmo desberdina islatzen da Gipuzkoako enpresen salmentetan merkatuen arabera, eta Erresuma Batuan (-280 milioi euro eta -% 49,7 2020ko lehenengo sei hilekoan) eta Frantzia (-166

El diferente ritmo de crecimiento de las áreas económicas se refleja en las ventas de las empresas de Gipuzkoa por mercados, de manera que la mayor disminución de las exportaciones se da en Reino Unido (-280



milioi euro eta -% 24,0) jaisten dira gehien esportazioak. Azpimarratu daiteke, baita ere, Ekuadorren izandako jaitsiera (-80 milioi euro eta -% 95,9). 2020an esportaziotan eman da igoera, Zelanda Berrian (40 milioi euro eta % 1.044,3), Suedian (22 milioi euro eta % 76,5) eta Errusian (16 milioi euro eta % 64,6).

millones de euros y el -49,7% en el primer semestre de 2020) y Francia (-166 millones de euros y el -24,0%). También destaca el descenso de Ecuador (-80 millones de euros y el -95,9% en el primer semestre de 2020). Se da aumento de las exportaciones, en el ejercicio 2020, en Nueva Zelanda (40 millones de euros y el 1.044,3%), Suecia (22 millones de euros y el 76,5%) y Rusia (16 millones de euros y el 64,6%).

2.1.8. taula.- Esportazioak area geografikoen arabera

Cuadro 2.1.8.- Exportaciones por áreas geográficas

AREA GEOGRAFIKOAK AREAS GEOGRAFICAS	Balio absolutuak Valores Absolutos				Bariazio abs. Variac. abs.		Bariazioa (%) Variación %	
	2018	2019	2019 I sem	2020 I sem	19/18	20/19	19/18	20/19
UE 28	4.866	5.582	2.890	2.130	716	-760	14,7	-26,3
Frantzia	1.292	1.346	694	528	55	-166	4,2	-24,0
Alemania	834	786	404	345	-48	-60	-5,7	-14,8
Italia	440	419	225	167	-21	-58	-4,8	-25,6
Erresuma Batua	569	1.225	563	283	656	-280	115,4	-49,7
EEUU	457	520	265	189	63	-75	13,7	-28,5
TXINA	232	241	129	100	10	-29	4,2	-22,7
LATINOAMERIKA	725	744	412	250	19	-162	2,6	-39,4
Gainerako herrialdeak	1.361	1.442	730	596	81	-134	6,0	-18,3
ESPORTAZIOAK, GUZTIRA TOTAL EXPORTACIONES	7.641	8.530	4.426	3.265	889	-1.161	11,6	-26,3

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra/Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

Analisis produktuen inportazioan zentratzen badugu, 2020an, inportazioen produktu talde guztietan eman da jaitsiera, metalen taldean izandako jaitsiera handiena izanik, 2020ko lehenengo seihilekoan 233 milioi euroko jaitsiera izan baitu (-% 31,9). Aipatzekoa da bestalde material elektrikoaren taldeko inportazioetan izandako jaitsiera (128 milioi eta -% 22,4).

Si centramos el análisis en las importaciones por productos, el descenso de las importaciones, en el ejercicio 2020, se da en todos los grupos de productos, siendo mayor la disminución de los metales, que en el primer semestre de 2020 registra una disminución de 233 millones de euros (-31,9%). Cabe mencionar también la disminución de las importaciones en el grupo de material eléctrico (128 millones y el -22,4%).

2.1.9. taula.- Inportazioak produktuen arabera

Cuadro 2.1.9.- Importaciones por productos

PRODUKTU TALDEAK GRUPOS DE PRODUCTOS	Balio absolutuak Valores Absolutos				Bariazio abs. Variación Abs.		Bariazioa (%) Variación %	
	2018	2019	2019 I sem	2020 I sem	19/18	20/19	19/18	20/19
Nekazaritza produk. / Prod. Agrícolas	411	425	207	175	15	-32	3,6	-15,5
Papera / Papel	307	297	157	139	-10	-18	-3,3	-11,4
Plastikoa eta kautxoa./ Plástico y caucho	187	198	104	83	11	-21	5,9	-19,8
Metalak / Metales	1.154	1.241	731	498	87	-233	7,5	-31,9
Material elektrikoa / Material eléctrico	1.095	1.119	570	442	24	-128	2,2	-22,4
Garraio materiala / Material de transporte	309	344	175	152	35	-23	11,4	-13,1
Besteak / Resto	632	620	312	266	-12	-45	-2,0	-14,5
Inportazioak, guztira/ Importaciones	4.095	4.244	2.256	1.756	149	-500	3,6	-22,2

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.



Inportazioak herrialdeen arabera aztertuta, inportazioen beherakada handiena Frantzia ematen da (111 milioi euro eta -% 25,7). Alemaniatik gutxiago inportatu da (107 milioi euro eta -% 26,3) eta gauza bera Belgikatik (67 milioi euro eta -% 61,7). Gehiago inportatu da AEBetatik (5 milioi euro eta % 13,6) eta Irlandatik (3 milioi euro eta % 52,3).

En cuanto a las importaciones por países, la mayor disminución de las importaciones se da en Francia (111 millones de euros y el -25,7%). Se importa menos de Alemania (107 millones de euros y el -26,3%), y de Bélgica (67 millones de euros y el -61,7%). Se importa más de EE.UU. (5 millones de euros y el 13,6%), y de Irlanda (3 millones de euros y el 52,3%).

2.1.10. taula.- Inportazioak area geografikoen arabera


Cuadro 2.1.10.- Importaciones por áreas geográficas

AREA GEOGRAFIKOAK AREAS GEOGRAFICAS	Balio absolutuak Valores Absolutos				Bariazio abs. Variación Abs.		Bariazioa (%) Variación %	
	2018	2019	2019 I sem	2020 I sem	19/18	20/19	19/18	20/19
EB(UE 28	3.169	3.219	1.729	1.284	50	-445	1,6	-25,7
Frantzia	826	784	432	321	-42	-111	-5,1	-25,7
Alemania	761	765	405	299	4	-107	0,6	-26,3
Italia	361	366	189	139	5	-51	1,3	-26,7
Erresuma Batua/Reino Unido	175	171	91	64	-3	-26	-1,9	-29,0
AEB/EEUU	56	66	35	39	10	5	17,5	13,6
TXINA	329	422	209	202	93	-6	28,3	-3,0
LATINOAMERIKA	78	83	42	35	5	-8	6,7	-18,3
Gainerako herrialdeak	464	454	241	196	-10	-45	-2,1	-18,8
INPORTAZIOAK, GUZTIRA TOTAL IMPORTACIONES	4.095	4.244	2.256	1.756	149	-500	3,6	-22,2

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

Inportazioen eta esportazioen bilakaera (milioi eurokotan) Evolución de las importaciones y exportaciones (millones de euros)



2.2.- LAN MERKATUA

Laneko adierazleen arabera, Gipuzkoako lan merkatuak behera egiten du 2020ko lehenengo seihilekoan, eta % 8,2ko langabezia tasara iritsi da; biztanleria okupatua jaitسي egin da (-% 1,6) eta biztanleria aktiboa gutxiago jaitسي da (-% 0,8).

2.2.- MERCADO DE TRABAJO

Según los indicadores laborales, el mercado de trabajo de Gipuzkoa empeora ligeramente durante el primer semestre de 2020, con una tasa de paro que se ha situado en el 8,2%; la población ocupada ha disminuido (-1,6%), y la población activa ha disminuido menos (-0,8%).



Datu estatistikoen arabera, batez besteko **biztanleria okupatua** 311.000 pertsonakoa izan da urteko lehen sei hilabeteetan. Aurreko urteko epealdi bereko batez bestekoarekin alderatuta, 5.100 lanpostu gutxiago daude, hau da, % 1,6ko jaitsiera urte batetik bestera.

Los datos estadísticos muestran una media de **población ocupada** en el primer semestre del año de 311.000 personas. Comparándolo con la media del mismo periodo del año anterior hay una disminución de puestos de trabajo de 5.100 personas, lo que supone una disminución interanual del 1,6%.

2.2.1. taula.- Biztanleria okupatua Cuadro 2.2.1.- Población Ocupada

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	2019 1. seih./1 ^{er} sem. (*)	2020 1. seih./1 ^{er} sem. (*)	Dif. abs. Dif. Abs.	Dif. (%) Dif. en %
Biz.okup. guzt. / Total P.Ocupada	316,1	311,0	-5,1	-1,6
Gizonezkoak / Varones	167,7	162,8	-4,9	-3,0
Emakumezkoak / Mujeres	148,4	148,3	-0,1	-0,1
16-24 urte / 16-24 años	14,5	13,3	-1,2	-8,0
25-44 urte / 25-44 años	143,3	137,1	-6,2	-4,3
> 45 urte / > 45 años	158,4	160,6	2,2	1,4
Lehen sektorea / Primario	3,4	1,3	-2,1	-61,8
Industria / Industria	85,2	81,4	-3,8	-4,4
Eraikuntza / Construcción	17,2	16,9	-0,3	-1,7
Zerbitzuak / Servicios	210,4	211,4	1,0	0,5

(Pertsonak milakotan / Personas en miles)
Iturria / Fuente: EUSTAT.

(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses

Sexuaren arabera aztertuz gero, jaitsiera hori gizonengan eta emakumeengan gertatu da: 4.900 gizon okupatu gutxiago daude, eta 100 emakume okupatu gutxiago.

Analizando **según el sexo**, esta disminución se ha dado en ambos sexos: 4.900 hombres ocupados menos y 100 mujeres ocupadas menos.

Adin taldeen arabera, 45 urtetik gorako taldean soilik gertatu da igoera. 45 urtetik gorako taldean 2.200 okupatu gehiago daude, hau da, % 1,4 da urte arteko tasa. Adinik txikieneko tartea jaitsi da 1.200 pertsonetan, -% 8,0. 25 eta 44 urte bitarteko taldean 6.200 pertsona gutxiago daude okupatuta, eta urte arteko bariazioa -% 6,2 da.

Por **grupos de edad**, únicamente aumenta el tramo de mayor edad. En el tramo de mayor edad hay 2.200 personas ocupadas más, lo que supone una tasa interanual del 1,4%. El tramo de 16 a 24 años disminuye en 1.200 personas, -8,0%. El tramo de 25 a 44 años recoge 6.200 personas menos ocupadas, con una variación interanual del -6,2%.

Biztanleria okupatuaren **sektorekako analisisian**, zerbitzuen sektorean gertatu da igoera, termino absolutuetan 1.000 langileko igoera izanik (% 0,5).

En el **análisis sectorial** de la población ocupada, se produce aumento en el sector servicios, con un aumento de 1.000 personas empleadas en términos absolutos (0,5%).

Lehen sektorean, 2.100 pertsona okupatu gutxiago daude: termino portzentualetan oso bariazio handia da (-% 61,8).

En el sector primario hay 2.100 personas ocupadas menos, que en términos porcentuales supone una variación muy grande, del -61,8%.

Eraikuntzaren sektoreak 300 okupatu gutxiago izan ditu, urte arteko bariazio tasa -% 1,7 izanik. Industriaren sektoreak 3.800 okupatu gutxiago izan ditu, urte arteko -%

El sector de la construcción, con 300 personas empleadas menos ha obtenido una tasa de variación interanual del -1,7%. El sector industrial, con 3.800 personas



4,4ko bariazio tasa izan du.

empleadas menos ha obtenido una tasa de variación interanual del -4,4%.

2.2.2. taula.- Biztanleria aktiboa Cuadro 2.2.2.- Población Activa

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	2019 1. seih./1er sem. (*)	2020 1. seih./1er sem. (*)	Bar. Abs. Dif. Abs.	Bariaz. (%) Dif. en %
Aktiboak, guztira / Total P. Activas	341,6	339,0	-2,7	-0,8
Gizonezkoak / Varones	180,1	176,5	-3,6	-2,0
Emakumezkoak / Mujeres	161,6	162,5	0,9	0,6
16-24 urte/ 16-24 años	16,6	17,2	0,6	3,6
25-44 urte / 25-44 años	156,6	151,4	-5,2	-3,3
> 45 urte / > 45 años	168,5	170,4	1,9	1,1

(Pertsonak milakotan / Personas en miles)

Iturria / Fuente: EUSTAT.

(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses

2020ko lehen sei hilabeteetan, **biztanleria aktiboak** jaitsiera izan du aurreko urteko epealdi berberaren aldean: 2.700 pertsona gutxiago (-% 0,8). Sexuen arabera: gizonak % 2,0 jaitsi dira, eta emakumeak % 0,6 igo.

Adin taldeen arabera, bakarrik bigarren tartean biztanleria aktiboa jaitsi da. Adin txikieneko tartea -16 eta 24 urte bitartekoak- 600 pertsona igo dira (% 3,6); adin handieneko taldean -45 urtetik gorakoak- 1.900 pertsona igo dira (% 1,1); bigarren tartean -25 eta 44 urte bitarteko taldea- 5.200 pertsona jaitsi dira (-% 3,3) termino absolutuetan (jaitsiera nominala izan duen tarte bakarra).

Biztanleria aktiboa biztanleria okupatua baino gutxiago jaitsi denez, **langabetuen kopuruak** gora egin du. Aztertutako epealdia hartu eta aurreko urteko denboraldi berberarekin alderatuz gero, ikusten da 2.500 langabetu gehiago daudela, hau da, +% 9,6ko bariazio tasa izan da. Horren ondorioz, langabezia tasa % 8,2an geratu da, 0,7 puntu portzentual gehiago 2019ko lehen seihilekoan izandakoaren aldean.

La **población activa**, a lo largo de los seis primeros meses de 2020, respecto al mismo periodo del año anterior, ha disminuido, concretamente en 2.700 personas (-0,8%). Por sexos: los hombres disminuyen un 2,0%, mientras que las mujeres aumentan un 0,6%.

Por grupos de edad, únicamente en el tramo intermedio, de 25 a 44 años se ha producido disminución de población activa. El segmento de menor edad, de 16 a 24 años, ha aumentado en 600 personas (3,6%); el segmento de mayor edad, a partir de 45 años, ha aumentado en 1.900 personas (1,1%); mientras que el tramo intermedio, de 25 a 44 años, ha disminuido en términos absolutos en 5.200 personas, -3,3% (única disminución de número de personas).

Al haber disminuido menos la población activa que la población ocupada, el **colectivo de personas sin empleo** aumenta. Para el periodo estudiado y comparándolo con igual periodo del año anterior, la población desempleada aumenta en 2.500 personas, con una tasa de variación del +9,6%. Por ello, la tasa de paro se ha situado en el 8,2%, 0,7 puntos porcentuales superior a la tasa correspondiente al primer semestre de 2019.



2.2.3. taula.- Langabetuak
Cuadro 2.2.3.- Población Parada

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	2019 1. seih./1 ^{er} sem. (*)	2020 1. seih./1 ^{er} sem. (*)	Bar. Abs Dif. Abs.	Bar. (%) Dif. en %	Langabezia tasa (%) Tasa de paro % (1)	
					2019 1. seih./1 ^{er} sem. (*)	2020 1. seih./1 ^{er} sem. (*)
Langabeak, guztira/Total P. Paradas	25,5	28,0	2,5	9,6	7,5	8,2
Gizonezkoak / Varones	12,3	13,6	1,3	10,6	6,8	7,7
Emakumezkoak / Mujeres	13,2	14,3	1,2	8,7	8,1	8,8
16-24 urte / 16-24 años	2,1	3,9	1,8	83,3	12,7	22,4
25-44 urte / 25-44 años	13,2	14,3	1,1	8,3	8,4	9,4
> 45 urte / > 45 años	10,1	9,8	-0,4	-3,5	6,0	5,7
1. enplegua / 1 ^{er} empleo	2,4	2,5	0,1	4,3	9,2	8,8

(Pertsonak milakotan / Personas en miles)

Iturria / Fuente: EUSTAT.

(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses

(1) Langabezia tasak biztanleria langabetua eta biztanleria aktibo osoa erlazionatzen ditu. Lehen enpleguari dagokion laukian, ordea, inoiz lan egin ez duen biztanleria langabetua eta langabetu kopuru osoa jartzen dira erlazioan.

(1) La tasa de paro relaciona la población parada frente a la población total activa salvo la casilla correspondiente al primer empleo que relaciona la población de primer empleo frente al total de parados.

Sexuaren arabera aztertuz gero, gizonezko langabetuen kopuruak gora egin du (+% 10,6), eta emakumezko langabetuenak, gutxiago gora egin du (+% 8,7). Halaber, gizonezkoen langabezia-tasa emakumezkoena baino txikiagoa da (% 7,7 eta % 8,8, hurrenez hurren).

Analizando **por sexos**, el número de personas sin empleo aumenta en los varones el 10,6% y aumenta menos en las mujeres, el 8,7%, pero la tasa de paro masculino es inferior a la femenina (7,7% frente a 8,8%, respectivamente).

Adinaren arabera, erdiko taldeetan 1.100 langabetu gehiago daude (+% 8,3), 45 urtetik gorako taldean, 400 langabetu gutxiago (-% 3,5) eta 25 urtetik beherako taldean 1.800 langabetu gehiago daude (+% 83,3).

Por edades, el segmento intermedio aumenta en 1.100 personas (+8,3%), el segmento de mayores de 45 años disminuye en 400 personas (-3,5%) y el segmento de menores de 25 años aumenta en 1.800 personas (+83,3%).

Langabezia tasari dagokionez, zaharren taldeak du portzentajerik txikiena: biztanleria aktiboaren % 5,7. Erdiko taldeek pixka bat altuagoa dute portzentajea, % 9,4, guztizkoaren % 8,2 baino 1,2 puntu portzentual gehiago. Azkenik, gazteenek dute langabezia-tasarik altuena: biztanleria aktiboaren % 22,4.

Con respecto a la **tasa de paro**, el segmento de los de más edad sigue teniendo el porcentaje más bajo, situándose en el 5,7% de la población activa. La segunda tasa menor corresponde al colectivo de edades intermedias que presenta un paro del 9,4%, 1,2 puntos porcentuales mayor al 8,2% del total. Por último, las personas más jóvenes la tasa de desempleo más elevada al ser el 22,4% de la población activa.

Lehen enpleguaren apartatuko langabezia tasak inoiz lan egin ez duen biztanleria langabetua eta biztanleria langabetu osoa erlazionatzen ditu. Apartatu hau 100 pertsona gehitu da, hau da, aurreko urteko denbora tarte beraren aldean; batekoz beste

La tasa de paro referente al apartado de **primer empleo** relaciona la población que está en paro y nunca ha trabajado con el total de la población parada. Este apartado ha aumentado en 100 personas, comparando con el mismo periodo del año anterior, quedando



2.500 pertsona geratu dira egoera horretan 2020ko lehen sei hilabeteetan. Haien langabezia tasa % 8,8 izan da; 2019ko lehen sei hilabeteetan, aldiz, tasa % 9,2 izan zen.

en esta situación una media de 2.500 personas en el primer semestre del 2020. Su tasa de paro ha alcanzado el 8,8%, cuando esta misma tasa se situaba en el 9,2% en el primer semestre del 2019.

2.2.4. taula.- Gizarte-Segurantzara afiliatuek
Cuadro 2.2.4.- Personas afiliadas a la Seguridad Social

ERREGIMEN KONTZEPTUAK CONCEPTOS RÉGIMEN	Balio absolutuak (milakakoak) Valores Absolutos (en miles)				Bariazio abs. Variación Abs.		Bariazioa (%) Variación %	
	2016	2017	2018	2019	18/17	19/18	18/17	19/18
OROKORRA / GENERAL	227,3	234,5	241,3	248,4	6,8	7,2	2,9	3,0
AUTONOMOAK / AUTÓNOMOS	66,2	65,6	65,9	65,2	0,3	-0,7	0,5	-1,1
NEKAZARITZA / AGRARIO	1,9	1,9	1,8	1,8	0,0	-0,0	-2,0	-3,8
ITSASOA / MAR	0,6	0,6	0,6	0,6	0,0	0,0	-2,1	6,6
ETXEKO LANAK / HOGAR	10,2	10,4	10,1	9,8	-0,2	-0,3	-2,0	-3,4
GUZTIRA / TOTAL	306,2	312,9	319,8	325,8	6,8	6,1	2,2	1,9

Gizarte Segurantzako afiliatuen eboluzioa aztertuta ikusten da eboluzioa positiboa dela, etxeke lanak, autonomoak eta nekazaritza erregimenekotan izan ezik (aldea - % 2,8 da batez beste).

Analizando la evolución de las personas afiliadas a la Seguridad Social, constatamos su evolución positiva, que únicamente se ve alterada en los regímenes de hogar, autónomos y agrario (con variación del -2,8% de media).

2.2.5. taula.- Langabetuak LANBIDEREN arabera
Cuadro 2.2.5.- Personas desempleadas según LANBIDE

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	2019 (*)	2020 (*)	Dif. abs. Dif. Abs.	Dif. (%) Dif. en %
Langabeak, guztira/Total P. Desempleadas	30,5	36,2	5,7	18,9
Gizonezkoak / Varones	12,7	16,1	3,4	26,4
Emakumezkoak / Mujeres	17,8	20,1	2,4	13,5
Lehena eta ALG / Primario y SEA	4,0	4,5	0,5	11,7
Industria / Industria	4,3	5,1	0,9	20,2
Eraikuntza / Construcción	1,6	1,8	0,2	12,9
Zerbitzuak / Servicios	20,6	24,8	4,2	20,4

(*) Lehen zortzi hilabeteetako batez bestekoa / Media de los ocho primeros meses

Lanbideak jasotako datuen arabera, langabeen kopurua 5.745 pertsona gehiagokoa da (+% 18,9) 2020ko lehenengo zortzi hilabeteetan. Igoera handiagoa izan da portzentualki eta kopuruan gizonezkoetan, eta ekarpen handiena egin duena zerbitzu sektorea izan da (4.205 pertsona gehiago, % 20,4).

Según los datos que figuran en LANBIDE el número de personas desempleadas ha aumentado en 5.745 personas (+18,9%) en los primeros ocho meses de 2020. Este aumento ha tenido mayor incidencia porcentual y de número en los hombres y el sector que más ha contribuido es el de servicios (4.205 personas más y el 20,4%).

2.2.6. taula.- Enplegu-erregulazioko espedienteek eragin dien langileak
Cuadro 2.2.6.- Personas empleadas afectadas por expediente de regulación de empleo

KONTZEPTUA / CONCEPTO	2015	2016	2017	2018	2019
Langile kopurua / Número P. empleadas	2.691	1.746	1.188	565	845



Enplegu erregulazioko espedienteetan sartutako langileen eboluzioa aztertuz, beherako joera garrantzitsua ikusten da, baina 2019an gora egiten du. 2019an, aurreko urtearekin alderatuta, espedienteek eragin dien langile kopurua 280 pertsonetan handitu da (+% 49,6).

Gipuzkoako eremuan, 2020ko abuztura arte, hitzarmen kolektiboetan sinatutako **soldata igoerak**, 2020an zehar ondorio ekonomikoak dituztenak, handiak dira oraindik (% 1,57), baina hitzarmen kopuruak txikia izaten jarraitzen du, orain 97 hitzarmen baitaude indarrean, 1.333 enpresa eta 19.185 langile hartzen dituztenak, eta batez besteko lanaldia urtean 1.685,78 ordukoa da.

Analizando la evolución de las personas empleadas afectadas por expediente de regulación de empleo, se constata una importante tendencia descendente, con incremento en el ejercicio 2019. En 2019, comparado con 2018, el número de personas empleadas afectadas por expediente aumenta en 280 (+49,6%).

Los **incrementos salariales** firmados en los convenios colectivos, hasta agosto de 2020, en el ámbito de Gipuzkoa, con efectos económicos a lo largo de 2020 siguen siendo considerables (1,57%), pero el número de convenios se mantiene bajo, ya que únicamente tienen efecto 97 convenios que afectan a 1.333 empresas y 19.185 personas empleadas, siendo la jornada media de 1.685,78 horas al año.